Agintariak eta Langileria

Oposaketak eta Lehiaketak

HERRIZAINGO SAILA

126

EBAZPENA, Segurtasun sailburuordearena, Euskal Herriko Poliziaren Ikastegiko iragarki-oholean ondoko ebazpena noiz jarriko den aditzera emateko dena: 2009ko urtarrilaren 5eko Ebazpena, zenbait lagun Ertzaintzako karrerako funtzionario izendatzeko dena.

Euskal Herriko Poliziaren Ikastegiaren zuzendariaren 2005eko abenduaren 26ko Ebazpenaren bidez (EHAA, 10. zk., urtarrilaren 16koa), Ertzaintzako Oinarrizko Eskalako agentea kategorian sartzeko hautaketa-prozesurako deialdia egiten da. Bada, ebazpen horretako hemeretzigarren oinarrian ezarritakoarekin bat etorriaz, hauxe

EBATZI DUT:

Lehenengoa.– Jakinarazten da: 2009ko urtarrilaren 5ean erakutsiko dela Euskal Herriko Polizia Ikastegiko iragarki-oholean Segurtasun sailburuordearen 2009ko urtarrilaren 5eko Ebazpena, zenbait lagun Ertzaintzako karrerako funtzionario izendatzeko dena.

Bigarrena.– Ebazpen honetan ez da amaitzen administrazio-bidea, eta interesatuek haren kontra gora jotzeko errekurtsoa aurkez diezaiokete Herrizaingo sailburuari, Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratzen den egunetik aurrera zenbatu beharreko hilabeteko epearen barruan, hala ezarririk baitago Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen azaroaren 26ko 30/1992 Legearen 107. eta 114. artikuluetan.

Vitoria-Gasteiz, 2009ko urtarrilaren 5a.

Segurtasun sailburuordea,
MIKEL LEGARDA URIARTE.

Autoridades y Personal

Oposiciones y Concursos

DEPARTAMENTO DE INTERIOR

126

RESOLUCIÓN del Ilmo Sr. Viceconsejero de Seguridad, por la que se anuncia la fecha de colocación en el tablón de anuncios de la Academia de Policía del País Vasco de la Resolución de fecha 5 de enero de 2009, por la que se nombra funcionarios/as de carrera de la Ertzaintza.

De conformidad con lo establecido en la base decimonovena de la Resolución de 26 de diciembre de 2005, de la Directora de la Academia de Policía del País Vasco, por la que se convoca procedimiento selectivo para ingreso en la Categoría de Agente de la Escala Básica de la Ertzaintza (BOPV n.º 10, de 16 de enero),

RESUELVO:

Primero.– Hacer público que con fecha 5 de enero de 2009 se coloca en el tablón de anuncios de la Academia de Policía del País Vasco la Resolución de 5 de enero de 2009, del Viceconsejero de Seguridad, por la que se nombra funcionarios/as de carrera de la Ertzaintza.

Segundo.– Contra la presente Resolución, que no pone fin a la vía administrativa, podrán los/as interesados/as interponer recurso de alzada ante el Excmo. Sr. Consejero de Interior en el plazo de un mes desde su publicación en el Boletín Oficial del País Vasco, a tenor de lo establecido en los artículos 107 y 114 de la Ley 30/1992, de 26 de noviembre, de Régimen Jurídico de las Administraciones Públicas y del Procedimiento Administrativo Común.

En Vitoria-Gasteiz, a 5 de enero de 2009.

El Viceconsejero de Seguridad,
MIKEL LEGARDA URIARTE.